

# GURE IRAKURGELA

## DICKENS OSTEKO KALE-GAZTEAK

Manu Lopez Gaseni

**R**obert Swindells Erresuma Batuko idazle emankorrek ospea eskuratu du genero desberdinetan idatzitako hamaika libururi eta irabazitako sari garrantzitsu batzuei esker. Gazte zein helduentzat idatzi du; eta haren idazlan gehienak fantasiaren alorrekoak izanagatik, oraingoan hizpide dugun hau koordenada errealistetan kokatzen da betebetan.

“Homeless” edo etxe gabekoen fenomenoaren alderdi bat islatu nahi izan du: etxetik alde



**Liburua:**  
“Kale gorrian”  
**Egilea:** Robert Swindells  
**Itzultzailea:**  
Iñaki Mendiguren  
**Argitaletxea:**  
Elkar, 2005

eginda hiriburura lan bila iritsitako gazteen patu ankerra, bereziki Margaret Thatcher lehen ministroaren gobernu ultraliberalaren garai latzetan. Lana aurkitu ezinik, gazte horiek kale gorrian eskeketasunetik bizitzera behartuta daude, hotzaldi eta eurite zakarren pean, Charles Dickens kaleko ume urriagarrien antzera.

Horietako bat da Link, ama eta aitazunarekin gaizki konpontzen zela, negu gorrian Londresera ihes egindako hamasei urteko gaztea. Lehen pertsona kontakutako kapitulu laburren bidez, erabateko etsipenera eramango zuen eguneroko bizimodu tristea erakusten zaigu, la-

nik ziztrinena ez lortzeak ekarri zion itxura tamalgarririk mutilaren desitxurak lan-elkarriketazaleak uxatzerainoko sorgin gurpilean. Kontamoldea, ordea, ez da mindua edo penatua, hotza baizik, egokitutako patua onartzen duenaren naturaltasunarekin emana.

Ohitu izan gaituzte, horrelako narrazioetan, antagonista kolektiboak bilatzera: ekonomia liberala, gizarte axolagabe eta berekolia, eta abar. Hemengoa, ordea, oso etsai banakako eta identifikagarria da: armadatik bota duten errekluten instruktore ohia, jokabide neonaziduna, kalean bizi den jendalla garbitzeko metodo zorrotzen jabe

den gizonezko bihozgabea. Hau ere lehen pertsona mintzo da, Linken jardunarekin txandakutzen diren pasarte orobat laburren bidez.

Eta, espero izatekoa zen legez, une batean bi istorioek bat egiten dute, suspenseari eutsiz, amaiera zirrarragarri batean. Planteamendu egoki horri esker, gizarte-salaketa gordina izan behar zena thriller bihurtzen da, irakurlearen arreta azken uneraino erakarriz. Eta, hala eta guztiz ere, liburu hau irakurle gaztearengan arrastoa uzten dutenetakoa da, hori irakurritik aurrerantzean inguruko mundua beste era batera begiratzera derrigortuz.